

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

**EAEz kanpoko euskal etxe,
institutu eta ordezkarietzen
gastuen analisia**

**Análisis de gastos de centros
vascos, institutos y
delegaciones fuera de la CAE**

2003



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



ERANSKINA/ÍNDICE

I. SARRERA.....	3
II. ONDORIOAK.....	5
II.1.Euskal Etxeei emandako dirulaguntzak	5
II.2.Ordezkaritzak	6
III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK	9
III.1.Euskal Etxeei emandako dirulaguntzak.....	9
III.2.Ordezkaritzak	11
IV. AZALPEN ATALAK.....	13
IV.1.Euskal Etxeak	13
IV.2.Ordezkaritzak	21
IV.2.1. Sorrera eta funtzioak	21
IV.2.2. Gastuen analisia	23
I. INTRODUCCIÓN.....	27
II. CONCLUSIONES	29
II.1.Subvenciones a centros vascos.....	29
II.2.Delegaciones	30
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES	33
III.1.Subvenciones a centros vascos.....	33
III.2.Delegaciones	35
IV. APARTADOS EXPLICATIVOS	37
IV.1.Centros vascos	37
IV.2.Delegaciones.....	45
IV.2.1. Creación y funciones	45
IV.2.2. Análisis de los gastos	47
ALEGACIONES	52
APARTEKO BOTOA	58
VOTO PARTICULAR	59



I. SARRERA

EAEz kanpoko euskal etxe, institutu eta ordezkartzen gastuei buruzko txosten hau HKEEren 1/1989 Legeari jarraiki mamitu dugu eta 2004ko ekaina-2005eko maiatza aldirako Urteko Lan Programan barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta.

Euskal etxeak

Euskal etxeak, EAEz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/94 Legeak honela definitzen ditu: Euskadiko lurraldetik kanpo irabazte-xederik gabe eta legearen arabera eratutako elkarteak, iraskundeak eta bestelako lege-pertsonak euskal etxetzat joko dira baldin eta beren estatutuek eta ohizko ihardunak lege honetan zehaztutako helburuak lortzea bilatzen badute (Euskadik, euskal gizarteak eta bertako erakundeek EAEz kanpo dauden gizataldeekiko harremanak sustatu, babestu eta indartzea), eta legean zehaztutakoarekin bat etorri aintzakotzat jotzen badira.

Lege honek euskal etxeen alde hainbat zerbitzu ematea aurreikusten du eta azpimarratzekoa da 8.3 artikuluan araututakoa “EAEren administrazio orokorrak, aurrekontuan zenbaterainoko diru-kopurua duen ikusita eta lege honen helburuei begira, honako arlooi lagunduko die, bereziki:

- *Euskal etxeen iharduera-gastuak ordaintzeari.*
- *euskal etxeen azpiegitura mantendu eta hobetzeari.*
- *Euskal etxeek, etxeon federazioek edo konfederazioek antolatzen dituzten iharduera edo programei, Euskal Herriarekin zerikusia baldin badute.*
- *Elkarte horietako bazkideei, laguntza behar badute, eta batez ere egoera larrian daudenei.”*

Legean aurreikusitako zerbitzuak jaso ahal izateko, euskal etxe guztiek alde aurretik euskal etxeen erroldan izena emanda egon beharko dute -318/1994 Dekretuan araututakoa- eta Lehendakartzari atxikia. 2003ko abenduaren 31n 142 euskal etxe daude izena emanda 21 herrialdetan.

Euskal etxe hauetan sartzen dira Kooperazio eta Garapenerako Institutu Euskal-Argentinarra, Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarra, Eguzki Kooperaziorako Institutu Euskal-Venezuelarra eta Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarra, aurrerantzean institutuak, era honetara 1995ean aitortu eta erregistratu zirenak, kultur jarduerak gauzatzeaz gain, EAE eta jatorrizko herrialdeen arteko harreman ekonomikoak indartzera emanak daudenak. Jarduera honetarako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailetik finantzaketa jasotzen dute 2000ko urrian izenpetutako hainbat lankidetzak hitzarmenen indarrez, 2003ra arte luzatu direnak.



Administrazioari euskal etxeek sortutako gastuak dirulaguntza izaerakoak dira, eta lanak honako hau izan du aztergai:

- 2003ko urtealdian euskal etxeei emandako dirulaguntzen zenbatekoa zehaztea eta aurrekontuan zuzen erregistratu direla egiaztatzea.
- Emandako dirulaguntzak arautzen dituen arautegia ez ezik, laguntzak eman eta ordaintzeko erabilitako prozedura ere aztertzea.
- Espedienteen lagin bat hautatzea, laguntzen emakida eta justifikazioa xehetasunez aztertuz.

Ordezkaritzak

Zuzendaritzaren maila organikoa dute eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren mendekotasun zuzen eta iherarkikoaren baitan dihardute, Lehendakartzaren jardute-atal dena.

Eusko Jaurlaritzak 1988az geroztik du Ordezkaritza Bruselan (hasiera batean Bulego deitua); 2002an Euskadiren Ordezkaritza Mexikon sortu zen eta 2003an Argentina, Txile, Venezuela eta Madrilgo Ordezkaritzak sortu ziren, nahiz Argentina eta Venezuelakoek, oraindik abian jarri ez direnak, ez duten ez ordezkaririk, ez aretorik.

Euskadik Bruselan duen Ordezkaritza Euskadi ordezkatzen duen organoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren hainbat alorretako interesak babestu eta bultzatzen ditu Europako Batasunaren erakundeen aurrean.

Euskadik Madrilen duen Ordezkaritzaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza instituzionala gauzatzea eta Madrilen euskal errealitatea zabaltzea.

Herrialde latinamerikarretako ordezkaritzak sortu dira Autonomia Erkidegoa ordezkatzeko organo modura garapenerako kooperazioaren alorrean, euskal taldeekiko harremanen alorrean eta EAERI dagozkion eskumenen esparruan hainbat alorretako interesak babestu eta bultzatzeko asmoz.

Lanaren mamia 2003an ordezkaritzek erregistratutako gastuaren zenbatekoa zehaztea izan da eta diru kopururik adierazgarrienak aztertuz, indarreko arautegira egokitzearen analisia gauzatzea.



II. ONDORIOAK

Euskal etxeei dagokienez, lanaren mamia eman zaizkien dirulaguntza kopuruak aztertzeraz mugatu da. Ordezkaritzen kasuan, “Kanpo Ekintza” aurrekontu programan kontuetaratutako zenbatekoaz gain, Madrilgo ordezkaritza egokitzeko lanek eragindako gastuak aztertu dira, “Ertzaintza zerbitzuan” programaren baitan kontuetaratu direnak.

II.1 EUSKAL ETXEEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

1. 20003ko urtealdian zehar 93 euskal etxeri ondoko dirulaguntzak eman zaizkie:

Laguntza lerroa	Euskal etxe kopurua	Mila €
EUSKO JAURLARITZA		2.405,8
Lehian		
Euskal etxeei emandako dirulaguntzak (124/03 D. 4. Kap.)	87	760,2
Euskal etxeei emandako dirulaguntzak (124/03 D. 7. Kap.).....	1	3,0
Asistentzia eta larritasun handiko beharretarako dirulaguntzak euskal kolektibitateetako pertsoneri (222/03 D)	12	64,2
Dirulaguntzak, programa edo kultur jarduera jakinak egiteko (26/3/03) (*)	1	15,0
Izenduna		
Argentinan Euskaraz	1	41,9
Zuzenak		
Abalaturako mailegusetatik ordaintzeko kopuruak finantzatzeko, 287/98 Dren babesean (03/5/20ko Konts. Orokor. Erab.).....	14	920,5
Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Hitzarmenak Institutuekin (03/10/21eko Kontseilu Orokorren Erabakia)	4	601,0
HABE (Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa).....		124,4
Lehian		
Laguntza ekonomikoak 03/04 ikasturteko euskarazko eskolengatik (03/10/28ko ebazpena) (*).....	16	124,4
Guztira (**)		2.530,2

(*) Dirulaguntza lerroak, zeinen onuradunak ez diren soilik euskal etxeak.

(**) Zenbait etxek dirulaguntzak lerro ezberdinetatik jasotzen dituzte.

Dirulaguntza hauek indarreko arautegiari jarraiki eman dira eta emandako helburuak betetzeko erabili dira.

2. Lau institutuek, 124/03 D bitartez bestelako zeinahi euskal etxe modura eskuratzen duten finantzaketaz gain, 601 mila euroko dirulaguntza zuzena eskuratzen dute, Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onetsitakoa. Dirulaguntza honek, beste hainbat jardueren artean, honako jarduera hauek eragindako 2003ko urtealdiko gastuak finantzatzeko ditu: EAEEn kokatutako enpresen kanpoko lehiakortasuna hobetzekoak; industri egitasmoak erakartzekoak; eta kanpo merkatuetan euskal gaien presentzia sendotzekoak, SPRiaren



kanpoko eragile modura jokatuaz. Zenbateko hau aurreko taulan islatu da Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren hitzarmen kontzeptuan.

Guztira, 797,7 mila euroko dirulaguntzak jaso dituzte 2003ko jarduerak finantzatzeko, gastu guztien %94,8 egiten dutenak:

Zenbatekoa	Mila €
Dirulaguntza, 124/03 D	233,8
03/10/21eko KOEren dirulaguntza (*)	563,9
Dirulaguntza garbiak GUZTIRA	797,7
Langile gastuak	489,2
Bestelako gastuak	305,7
Inbertsioak	46,6
Justifikatutakoa guztira	841,5
Finantzatutako gastuen %	94,8%

(*) Dirulaguntza garbia, itzulketen eta baliogabetzeko zenbatekoen ondoren

2003ko urtean, Txile eta Mexikoko Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritzak behin sortu eta dagozkien ordezkariak izendatu ondoren, giza eta gauzako baliabideen erabateko erabilgarritasuna izan arte, ordezkariak euren egitekoak herrialde horietan kokatutako institutuen egoitzetan garatu dituzte.

Institutu hauek eragiten dituzten ia kostu guztiak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituenaz gero, -161,6 mila euroko zenbatekoa Txileren kasuan, eta 346,1 mila euro Mexikori dagokionez-, biei finantzatutako gastuetan ordezkarietzi egozgarri zaizkien zenbatekoak barne hartzen dira eta zenbateko hori ez dezakegu zehaztu.

2004ko urtealdian salatu egin dira 2000n Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarrarekin eta Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarrarekin izenpetutako hitzarmenak, ordezkarietzek institutu hauek betetzen zituzten egitekoak betetzeagatik.

II.2 ORDEZKARITZAK

1. EAEren Administrazio Orokorrak 2003ko urtealdiaren aurrekontuetan ordezkarietzi dagokienez erregistratutako gastua, txosten honen sarrera-atalean zehaztutako zabalaren arabera, honako hau izan da:



Mila €					
Ordezkaritza	Langile gastuak	Funtzionamendu gastuak	Dirulaguntza arruntak	Inbertsioak	Guztira
Brusela	712,2	142,7	0,0	1,2	856,1
Madril	61,9	44,5	0,0	408,1	514,5
Txile	74,8	34,3	11,3	447,7	568,1
Mexiko	80,8	59,9	22,5	0,0	163,2
Argentina	0,0	2,7	11,3	0,0	14,0
Venezuela	0,0	2,7	11,3	0,0	14,0
Guztira	929,7	286,8	56,4	857,0	2.129,9
%	%43,7	%13,5	%2,6	%40,2	%100,0

Ordezkaritza bakoitzaren gastu egiturak horietako bakoitzaren finkapena islatzen du. Honela, bada, antzintasuna tarte, jada finkatua dagoen Bruselako bulegoan, langile gastuek guztizkoaren %83 egiten dute; beste aldean ditugu Madril eta Txilekoak, zeinetan inbertsioek %79a egiten baitute; izan ere, berriki sortuak izategatik, beharrezkoa izan baita goitza egokiez hornitzea.

Ordezkaritzen gastuak “Kanpo Ekintza” programari egozten zaizkio (1311), eta azpiprograma bitartez bereizten dira Bruselako Ordezkaritzari dagozkionak (13114 azpiprograma) eta gainerako ordezkaritzenak (13113 azpiprograma, 100. zentrua). Honez gain, gure analisisian aurkitu ditugun beste gastu batzuk ere barne hartu ditugu, beste azpiprograma batzuetan kontuetaratu direnak.

Laurbilduz, ordezkaritzen gastuak honako hauetan daude kontuetaratuak:

Mila €	
13114 azpiprograma, Bruselako Ordezkaritza	361,7
13113 azpiprograma, 100. zentroa	934,1
Gainerakoa, 1311 programa	555,8
2223 programa (Madrilgo Ordezkaritzako obrak)	278,3
Guztira	2.129,9

Aurrez adierazitako gastuek ez dituzte ordezkaritzek 2003ko urtean egindako gastu guztiak erakusten, aurreko atalean adierazitako moduan, izan ere Txile eta Mexikoko ordezkariek institutuen baliabideez egiten duten erabilera ez baita konpentsazio bat finkatua duen inongo hitzarmenetan gauzatu.

2. Aurreko atalean adierazitako gastuen exekuzioa indarreko arautegiari jarraiki mamitu da, ondoko salbuespenak salbuespen:

- Eusko Jaurlaritzak Madrilen duen Ordezkaritza zahar-berritzeko lanen kontratu-esleipena, 278 mila eurokoa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez bideratu zen, lehiaketara deitu ordez eta hori ez dago behar bezain justifikatua.



Gainera, ez da eskaintza bat egiteko baizik eskatu, lehiaketa eza behar bezala justifikatu ez dela.

- Kanpo ekintzan berariaz gaitutako teknikari lanpostua aldi baterako betetzeko bitarteko funtzionario baten hautaketa, helburu horretarako propio sortutako poltsa kontuan izan gabe gauzatu da, lanpostu hori izendapen libreko dela argudiatuz. Ordea, izendapen librea Euskal Funtzio Publikoaren Legeak funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko soilik aurreikusitako moldea da eta, behin-behineko langileentzat salbu, inoiz ez administraziorako sarbide izateko, bitarteko izaeraz izanda ere. Gainera, hautatutako pertsonak ez ditu LZn lanpostu horrentzat bereizitako ezagutza berariazko guztiak betetzen.



III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

III.1 EUSKAL ETXEEI DIRULAGUNTZAK

Euskal etxeei dirulaguntzak (124/03 D)

- Laguntzen onuradunak hautatzerakoan erabili diren irizpideak eta horien ponderazioa dekretu arautzailean eta urteko deialdian zehaztutakoak izan dira. Ordea, baloraketa batzordearen aktak ez du zehazten puntuaketa bakoitza emateko jarraitu den prozesu logikoa. Halaber, 2003ko deialdian beste irizpide bat jaso da, eskabidearen dokumentazioan hori balio-neurtzeko behar hainbateko informazioa jaso gabe.

Aurkeztutako eskabideei emandako puntuaketen justifikazioa Baloraketa Batzordearen aktan jaso behar litzateke, puntuaketa jakin bat ematea ez baita arrazoitzea. Gainera, irizpide guztiak baloratzeko adinako informazioa eskatu behar da.

- Indarreko arautegiaren arabera, justifikazioa nahikoa da eta honenbestez, dirulaguntza osorik ordaintzen da emandako dirulaguntzaren zenbatekoarekin gastuen egiaztagiriak aurkeztuta eta ez da eskatzen finantzatutako jarduerak sortutako sarrera eta gastuen balantze globala.

Dekretu arautzaileak aurreikusi egin beharko luke emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murrizteko aukera, baldin eta diruz lagundutako jarduerak egitean eskabidean aurkeztutako aurrekontuekiko desbideraketa nabarmenak gertatzen badira; horretarako, finantzatutako jarduerak sortutako gastu guztiak agiri bidez justifikatzeko eskatu beharko litzateke.

- 124/03 Dren artikulua arabera, dirulaguntzen onuradunek 2004ko martxoaren 31 baino lehenago diruz lagundutako jardueraren dokumentazio justifikagarria aurkeztu beharko dute; bada, 17 espedienteren laginean egindako analisisian ikusi dugu %70,6an bete egiten dela epe hau. Hori horrela izanik ere, 2005eko urtarrilean, emandako 88 dirulaguntzetatik badira bost, 20,7 mila euro egiten dituztenak, eskatutako dokumentazio guztia oraindik aurkeztu ez dutenak, Gobernuak inolako neurririk hartu ez duela.

Laguntza hauek arintasun handiagoz kudeatu behar dira eta justifikatzerakoan atzeraldi nabarmena duten dirulaguntzen kasuan, egoki diren neurriak bideratu.

- 124/03 Dren babesean emandako 485,9 mila euroko dirulaguntzei dagozkien 17 espediente aztertu ditugu eta honako huts hauek azaleratu zaizkigu:



- Aurkeztu diren eskabideetatik batek ere ez du programa eta jardueren artean lehentasun-hurrenkerarik bereizi, 124/03 Dren 9.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Lau espedientetan, dirulaguntza kalkulatzeko truke tiporen errore aritmetikoak edo aplikazio okerrekoak egin dira; honela, onuradunetarik bik zegokiena baino 2,6 mila euro gutxiagoko dirulaguntza jaso dute; gainerako biek, berriz, zegokiekeena baino 7,8 mila euro gehiagoko dirulaguntza eskuratu dute.
- Zenbait kasutan onartu egin dira okerrekin hainbat zenbaterako (finantzarriak ez diren inbertsio gastuak, Argentinan Euskaraz dirulaguntza nominatiboan ere aurkeztutako egiaztagiriak, e.a.). Nolanahi ere, justifikatutako zenbaterako, kontzeptu hauek kenduta, emandako dirulaguntza baino handiagoa da eta honenbestez, hori onetsi izateak ez luke inongo zenbaterokorik itzultzea eragingo.

Eusko Jaurlaritzak institutuekin dituen lankidetzaren hitzarmenak

- Institutuetako bati 180 mila eurotik gorako konturako ordainketa egin zaio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura egiten diren dirulaguntzen berme eta itzulketen araubide orokorra arautzen duen 698/1991 Dn aurreikusitako bermeak eskatu gabe.
- Ez 2000ko urtean izenpetutako hitzarmenak, ez Gobernu Kontseiluaren Erabakiak ez dute arautzen tokiko monetan justifikatutako gastuak eurotara trukatzeko erabili behar den trukaneurria zehazteko modua. Gastu hauek berak aurkezten dituzte institutuek 124/03 Dren babestean emandako dirulaguntzak justifikatzeko, 2003ko urtean trukaneurri ezberdinak erabili direlarik dirulaguntzen bi espedienteetan.

Emakidaren hitzarmenak edo erabakiak arautu egin behar luke tokizko monetan aurkeztutako egiaztagiriei aplikatu beharreko trukaneurria, gogoan hartuta Eusko Jaurlaritzak berak gastu horietan finantzatzeko emandako beste dirulaguntza batzuetan erabilitakoa zein izan den.

- Hitzarmenen objektua da horietan jasotako jarduerak gauzatzeko institutuei sortzen dien defizita finantzatzea eta horretarako, institutuek "sarrera eta gastuen kontuak" aurkeztu behar dituzte. Ez da zehaztu aitortu behar diren kontuen edukia; honen ondorioz, igortzen duten informazioa ez da bateratua. Honela, bada, bi institutuk emaitzen balantze eta kontuak aurkezten dituzte eta beste bik, berriz, gastu-sarreraren laburpenak baizik ez dituzte azaldu.

Informazio honekin batera gastuen egiaztagiri banakakoak igortzen dituzte. Edonola ere, Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarrak langile gastuak justifikatzeko -gastu guztien gainean %50 egiten dutenak-, nominak aplikatzeko zerrendak baizik ez ditu aurkezten.



Gure iritzira, Eusko Jaurlaritzak ematen duen finantzaketak ia gastu guztiak besarkatzen dituen zerga, argitasun handiagoz arautu behar litzateke aurkeztu beharreko kontu zein egiaztagiriaren edukia.

HABE Erakunde Autonomoari emandako laguntzak

- HABEren Zuzendari Nagusiaren 03/10/28ko Ebazpenaren 12. artikuluari jarraiki, 2003/2004 ikasturtean zehar emandako euskarazko eskolen kontzeptuko laguntza ekonomikoak arautzen dituen, erakunde onuradunek euskaltegiara edo zentrorara atxikitako langileen zerrenda aurkeztu behar dute, informazioak hartzen duen aldiari dagokionez eta ordainsari gordina eta betekizuna adierazi. Aztertu ditugun lau espedienteetatik batean ez da zerrenda hau igorri. Gainera, aurkeztutako egiaztagirietan 03 urria-04 ekaina aldiaren eskolak eman dituzten bost irakasleetarik bi baizik ez daude identifikatuak eta 04 uztaila-04 iraila aldiko bostetatik hiru baizik ez.

III.2 ORDEZKARITZAK

- Eusko Jaurlaritzak Madrilen duen Ordezkaritzarako hainbat altzariren horniketari dagokion kontratazio espedientea, 2003ko uztailaren 24an 129,8 mila euroan lehiaketa bidez esleitutakoa, premiazko prozedura erabili bideratu da eta premia hori ez dago behar bezala justifikatua.

Prezioari buruzko irizpidearen balorazioan administrazio klausulen pleguan aurreikusi gabeko formula erabili da; honek, irizpide hau balio-neurtzean, egitez, beharaldia eragin du. Era honetara, esleipen hartzaileak, lizitazio prezioarekiko %0,13ko beherapenarekin, hau da, 163 eurokoa, irizpide honetan 18,21 puntu eskuratu ditu guztira irizpideak esleituak zituen 40 punturen gainean. Honen aldean, ordea, hobekuntzei dagokien irizpidean, inongo hobekuntzarik erakutsi ez duten enpresei 0 puntu eman zaizkie, balizko 30ren gainean.

Kalitatearen irizpideari dagokionez, produktuaren ezaugarri tekniko eta estetikoak neurtzen dituen, alegia, kontratazio mahaiak eskatutako kanpoko txosten teknikoak ez du eskaintzen balorazioa arrazoitzen eta puntuak esleitzera soilik mugatzen da.

Hitz labur, gure iritzira, egindako hautaketa ez zegoen behar hainbat arrazoitua eta eskaintzarik garestienari eman zitzaion.

- “Madrilgo Ordezkaritza izango den etxean hainbat obra egitea” kontratuaren xedea, egingo diren obren aurrekontuan soilik zehazten da eta Eusko Jaurlaritzaren ustez hori bere horretan da plegu teknikoak; honenbestez, ez da existitzen proiektu oso bat.

Nahiz eta proiektua osatzen duten dokumentuetatik batzuk -kontratuaren legediari jarraiki- egin gabe utzi daitezkeen, ez da hala gertatzen obretan segurtasun eta osasunari buruzko xedapenekin.

Honela, bada, espedientean ez dago erasota segurtasun eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana, urriaren 24ko 1.627/97 EDren 6. artikulua araberako egin beharrekoa zena obrari ezargarriak zaizkion segurtasun eta osasunari buruzko arauak zehazteko.



- Bruselako Ordezkaritzaren garbiketa zerbitzuen kontratua, 2003an 20,6 mila euroko kostua izan duena, 1996az geroztik luzatu da eta honek zerbitzu kontratuentzat APKLTBren 198. artikulua aurreikusten dituen iraupen eta luzapen-epe gehienezkoak urratzen ditu.
- Bruselako Ordezkaritzaren gastu guztiak Arabako lurralde kodea duten aurrekontuko aplikazioetan erregistratu dira; Eusko Jaurlaritzak berak finkatutako lurralde irizpideen arabera, ordea, lurralde koderik gabeko aplikazioetara egotzi behar dira.



IV. AZALPEN ATALAK

IV.1 EUSKAL ETXEAK

2003ko abenduaren 31n zentroen erregistro ofizialean izen emandako euskal etxeak eta honenbestez, 8/1994 Legea ezarrita, euskal administrazioak deitutako laguntzetarako irispidea izan dezaketenak, 142 dira, ondoko xehekapenaren arabera:

HERRIALDEA	Etxe kopurua
ARGENTINA	62
AUSTRALIA	2
BELGIKA.....	1
BRASIL	1
KANADA.....	1
TXILE.....	3
KOLONBIA	1
EL SALVADOR	1
ESPAINIA.....	10
FRANTZIA.....	2
ITALIA	1
MEXIKO	3
PARAGUAI	1
PERU	1
ANDORRAKO PRINTZERRIA	1
PUERTO RICO.....	1
ERRESUMA BATUA.....	1
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	1
ESTATU BATUAK.....	33
URUGUAI.....	9
VENEZUELA.....	6
OROKORRA GUZTIRA	142

Zentroen %89a 1995-1999 aldian erregistratu zen. 2003ko urtealdian zehar Kolonbia eta Andorrako Printzerriko zentroeiei eman zaie alta.

Euskal etxeei dirulaguntzak (124/03 D)

2003ko urtealdian laguntza hauek 124/03 Dekretu bitartez arautzen dira eta zentroen funtzionamendu eta/edo inbertsio gastuak osorik edo zatika finantzatzera zuzenduak daude; baita ere, euskal etxeen baldintzak hobetzen, edota kanpoan euskal gizataldeen, hartu dituzten herrialdeen eta Euskadiren arteko giza, ekonomia eta kultur mailako harremanak sustatu eta indartzen lagunduko duten urteko programa edo jarduera zehatzak egitera.

Erregistratuak dauden 142 euskal etxeetatik, 2003ko urtean 93k eskatu dute dirulaguntza eta horietatik 4 balorazio prozesuz kanpo utzi dituzte deialdiaren betekizunen bat ez betetzeagatik. Eskabideen xedeari dagokionez, 54 zentrok laguntza gastu arrunt eta



inbertsioetarako eskatu dute; 33k gastu arruntetarako baizik ez dute eskatu eta 2k inbertsio gastuetarako.

Inbertsio gastuetarako aurkeztu diren 56 eskabideetarik, aurrekontuaren mugaketak direla eta, 3 mila euroko laguntza bakarria eman zaio Argentinan dagoen zentro bati.

Ordea, gastu arrunt edo dekretuaren betekizunak betetzen dituzten gastuetarako jasotako 87 laguntza-eskabideak hartu dira:

Herrialdea	Etxe kopurua	Mila €
		Zenbat.
ARGENTINA.....	42	247,2
AUSTRALIA.....	1	6,2
BRASIL.....	1	3,6
KANADA.....	1	2,1
TXILE.....	2	50,3
EL SALVADOR.....	1	3,5
ESPAINIA.....	9	89,5
FRANTZIA.....	1	19,3
ITALIA.....	1	3,4
MEXIKO.....	3	132,5
PERU.....	1	3,3
ANDORRAKO PRINTZERRIA.....	1	19,6
PUERTO RICO.....	1	1,1
ERRESUMA BATUA.....	1	6,0
DOMINIKAR ERREPUBLIKA.....	1	5,0
URUGUAI.....	7	33,4
ESTATU BATUAK.....	10	76,1
VENEZUELA.....	3	58,1
OROKORRA GUZTIRA	87	760,2

Dirulaguntza bi epetan ordaindu da. Honela, %75 behin dirulaguntza onetsi ondoren ordaintzen da eta gainerako %25, emandako dirulaguntzaren guztizkoaren egiaztagiria jaso eta egiaztatu ondoren; erakunde onuradunak egiaztagiria 2004ko martxoaren 31 baino lehenago jaso behar du.

Laguntzen emakida ebazpena 2003ko abenduaren 11koa da eta honenbestez, lehenengo %75aren ordainketa 2004ko urtealdian egiten da.

2004ko abenduaren 31n 2003ko deialdian emandako dirulaguntzen egoera honako hau da:



	Zentro	DO	Baliogabe	Ordaink.	Egiteke
	kopurua	2003	2004	2004	04/12/31
2004an justifikatu eta ordaindutako dirulaguntzak	77	714,6	-	714,6	-
Zatika justifikatutako dirulaguntzak (*)	1	19,6	4,9	14,7	-
2005eko urtarrilean onartutako ukoak.....	2	0,2	-	-	0,2
Azken ordainketa agindua 2005ean izan duten dirulaguntzak	3	8,1	-	6,1	2
2005eko urtarrilean osorik justifikatzeko dauden dirulaguntzak	5	20,7	-	15,5	5,2
2003ko deialdiko dirulaguntzak guztira	88	763,2	4,9	750,9	7,4

(*) Onuradunak, gainera, 5 mila euro itzuli ditu 2004an.

Euskal etxeei laguntza ekonomikoak asistentzia eta larritasun handiko beharretarako (222/03)

Dirulaguntza programa hau 2003ko urtealdian sortu da, irailaren 30eko 222/2003 D bidez, eta 8/1994 Legean adierazitako xedea betetzea du asmo, EAEz kanpo bizi diren egoiliar euskaldunei laguntza, asistentzia eta babesa ematea, alegia.

2003ko urtealdirako zuzkidura 65 mila eurokoa da eta horietatik 64,2 mila euro 38 pertsonaren beharrezan aurre egiteko eman dira:

	Zentro	Pertsona	
Herrialdea	kopurua	kopurua	Zenbatak.
Argentina.....	7	27	37,3
Txile	2	4	14,0
Uruguai.....	1	1	2,2
Venezuela	2	6	10,7
Guztira	12	38	64,2

Gobernuak abalatutako maileguak amortizatzeko dirulaguntzak

Euskal etxeentzako laguntzak arautu eta deitu ziren 287/1998 Dekretu bidez eta EAEn Administrazio Orokorrak abal finantzario moldea eman zien; horretarako, Eusko Jaurlaritzak maileguak emateko hitzarmena sinatu zuen finantzetxe batekin. Abalatutako maileguen xedea egoitza sozialetan azpiegitura eta ekipamenduetan inbertsioak egitea zen, zentro bakoitzeko 300,5 mila euroko muga finkatuz.

Abalatutako maileguak 1999ko urtealdian zehar gauzatu ziren, guztira 1.505,2 mila euroko zenbatekoarekin 16 euskal etxerentzako. 2001eko urtean abal hauetarik bi exekutatu egin ziren. 2002ko urtean, mailegu biziak zituzten Argentinako 12 euskal etxeek aparteko laguntza-neurriak eskatu zituzten abalez lagundutako kredituei aurre egiteko, zorpetutako konpromiso ekonomikoak betetzeko ezintasunak eraginda; izan ere, herrialdearen testuinguru orokorra aintzat hartuta, euskal gizataldeek zailtasun egoera larria bizi baitzuten. Honela, bada, 02/04/23ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez, dirulaguntza



zuzena eman zitzaien zentro hauei 124,9 mila euroko zenbatekoarekin, 2001eko ordaintzeko zituzten zenbatekoei eta 2002ko amortizazio eta interesei aurre egiteko.

2003ko urtean, maiatzaren 20ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez, 920 mila euroko dirulaguntza eman zitzaien saldo bizia zuten 14 zentroe, kreditu hauetatik ordaintzeko zegoen zor osoari aurre egiteko; halaxe, finantzetzearen egiaztagiriaren arabera, helburu horretarako erabili zen diru kopuru hori.

Kopuru honetatik, 145,7 mila euro Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarrari dagozkio. Abalez lagundutako mailegua institutua zegoen aretoa erosteko zatizko finantzaketarako erabili zen, zeina Eusko Jaurlaritzari dohaintzan eman baitzitzaion ordezkartza modura erabiltzeko.

Eusko Jaurlaritzak institutuekin izenpetutako lankidetza hitzarmenak

Erregistro ofizialean izena emandako euskal etheen zerrendan ondoko institutuak daude barne hartuak:

- Kooperazio eta Garapenerako Institutu Euskal-Argentinarra.
- Eguzki, Kooperaziorako Institutu Euskal-Venezuelarra.
- Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarra.
- Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarra.

Irabazi asmorik gabeko entitateak dira, 1993an fundazio modura eratu zirenak, Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarra izan ezik -asoziazio zibila baita-, eta erregistro ofizialean euskal etxe modura 1995eko irailean izen eman zutenak.

Hauen xede soziala euren estatutuen arabera, zientzia eta kultur mailako jarduerak egitea da, ikerketa eta ikerlan zientifikoak egin eta zabaltzea honako alor hauetan: ekonomia, finantza, historia, soziologia, zuzenbidea, kultura eta artea, letrak, ingeniariak, baliabide naturalak edo bestelako zeinahi zientziaren alorrean, Argentina, Venezuela, Mexiko eta Txile (kasuak kasu) eta euskal herrien nazio-balio eta izpirituaren tradizioak sendotuz eta giza, kultur eta zientzia maila hobea eskuratzeko neurriak egokituz eta bideratuz.

2003ko urriaren 21eko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez, guztira 601 mila euroko dirulaguntzak eman zitzaizkien lau institutu hauei, 2000ko urrian Eusko Jaurlaritzaren eta lau institutu hauen artean izenpetu ziren hitzarmenetan zehaztutako kontzeptu eta baldintzetan 2003ko urtealdian egindako jarduerak finantzatzeko. Hitz labur esanda, institutu bakoitzak zorpetutako gastuak finantzatzeko, bestelako jardueren artean, EAEn kokatutako enpresen kanpoko lehiakortasuna hobetzeari dagokionez, industri egitasmoak erakartzeari dagokionez eta atzerriko merkatuetan euskal produktuen presentzia sendotzeari dagokionez.



Institutuek egin beharreko egitekoak oinarrian honako hauek dira:

- Euskal enpresei beharrezko informazioa eman Argentina, Venezuela, Mexiko eta Txileko merkatuetan egitasmo industrial eta merkataritzakoak ezartzeko, horretarako beharrezkoa duten babes logistiko, juridiko eta laborala ez ezik, egoki duten harremanetarako programa ere emanez.
- Euskal Herriaren eskaintzara eta industri sektoreetara potentzialki estuen egokitzen diren lurralde hauetako enpresa ekimenak hautatu.
- Merkatu horietan finkatutako euskal enpresekin harreman iraunkorra finkatu eta bideratu, haiek ere euren zabalkunde eta garapen planen babesa eman eta informatuak egon daitezten.
- EAEn erakunde eta eragile ekonomikoek antolatutako egiteko komertzialak prestatzen babesa eman, beti ere laguntza eskatzen bada.
- Merkatu txostenak eta ikerketak mamitu, bereziki euskal enpresentzat aparteko interesa duten ekoizpen-sektoreei dagokienez.

Dirulaguntzaren %80a Erabakia onesten denean ordaintzen da, eta gainerako %20a -egiaz sortutako defizita muga izango duena-, sarrera eta gastuen kontuak justifikatu ondoren, urtealdiaren jarduera-memoriarekin batera aurkeztuko direnak.

2003ko urtean eman diren laguntzen exekuzioa honako hau izan da:

	Mila €					
	Emakida 2003 (DO)	Ordaink. 2003	Ordaink. 2004	Itzul. 2004	Baliog. kopurua	Dirulag. garbia
Kooperazio eta Garapenerako Institutu Euskal Argentinarra.....	144,3	115,4	28,9	25,5	-	118,8
Eguzki, Kooperaziorako Institutu Euskal-Venezuelarra.....	88,5	70,8	17,7	-	-	88,5
Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarra.....	241,6	193,3	48,3	-	-	241,6
Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarra.....	126,6	101,3	13,7	-	11,6	115,0
Guztira	601,0	480,8	108,6	25,5	11,6	563,9

Hitzarmenetan agindutakoa betez, institutuek 2003an eragindako kostuen eta 2003ko jardueren oroit-idatzia aurkeztu zuten 2004ko lehenengo seihilekoan. Egiaztagiriak herrialde bakoitzeko monetan aurkeztzen dira eta Eusko Jaurlaritzak eurora itzultzeko erabiltzen duen trukaneurria da gobernua institutu hauei zeinahi kontzepturengatik ordainketaren bat egiten dien 2003ko lehenengo datan indarrean dagoen hura (2003ko martxoaren 10a).



Justifikatutako zenbatekoa eta jasotako dirulaguntzekiko alderaketa honako hau da:

	Koop. eta Garap. Instituto Euskal -Argentinarra	Koop., Eguzki Instituto Euskal -Venezuelarra	Garapener. Instituto Euskal -Mexikarra	Garapener. Instituto Euskal -Txiletarra	Guztira	%
Langileria	119,6	96,3	182,7	90,6	489,2	%58,1
Bestelako gastuak	56,0	25,2	155,3	69,2	305,7	%36,4
Gastuak guztira.....	175,6	121,5	338,0	159,8	794,9	%94,5
Inbertsioak.....	3,9	3,8	37,1	1,8	46,6	%5,5
Justifikatutakoa guztira	179,5	125,3	375,1	161,6	841,5	%100,0
Dirulaguntza, 124/03 D.....	49,1	33,6	104,5	46,6	233,8	%29,3
Dirulag., Gob. Konts. Erab.....	118,8	88,5	241,6	115,0	563,9	%70,7
Dirulaguntzak	167,9	122,1	346,1	161,6	797,7	%100,0
Finantzat. kostuaren %	%93,5	%97,4	%92,3	%100,0	%94,8	

Oharra: Ez dugu aintzat hartu Garapenerako Instituto Euskal-Mexikarrak Gobernuak abalez lagundutako mailegutik ordaintzeko zituen kopuruak amortizatzeko jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa, egiaztagirietan ere barne hartu ez direlako ez amortizazioa, ez interesak. Halaber, 222/03 D bidez Eguzki, Kooperaziorako Instituto Euskal-Venezuelarrak jasotako zenbatekoa ere ez dugu kontuan izan, kasu honetan entitate laguntzaile modura jokatzen baitu.

Eusko Jaurlaritzak 2003an lau institutu hauek eragindako kostuen %94,8 finantzatu du. 2003an lau institutu hauek justifikatutako gastuek eta inbertsioek 841,5 mila euroko zenbatekoa egin zuten eta horietatik %94,5 gastu arruntari dagokio, eta gainerakoa inbertsioei.

Gastu arrunten barruan bereziki gailentzen dira langileriarri dagozkionak (%58,1), kasu guztietan egitura oso antzekoa dutenak: zuzendari orokorra, enpresaritza alorraren arduraduna, idazkaria, ordenantza, kontularia eta zenbait kasutan abokatua. Lau institutu hauen batez besteko plantila 4,8 langilekoa da eta langile bakoitzeko batez besteko kostua 26 mila eurokoa.

HABE laguntzak (2003ko urriaren 28ko Ebazpena)

Laguntzak, euskal etxe bakoitzari, 2003/2004 ikasturtean zehar euskarazko eskolak ematera zuzenduak daude, asteko 3 orduko gutxieneko maiztasunarekin, Zentroen Erregistroan izena emanda egon eta HABEk agindutako helduen alfabetatze eta euskalduntze programak aplikatzen dituztenei.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko ikasle/orduko 0,90 euroko molde finkoa aplikatzen da, aldi horretan egindako gastuak justifikatu behar dituztela.



Hona hemen zein izan diren 2003ko emakidak:

Herraldea	Zentro kopurua	Mila €		
		Emandakoa	DO 2003	Ikasleko ordu kop.
Andorra	1	1,9	0,7	2.160,0
Argentina (*)	1	40,5	14,0	45.013,0
Txile	1	3,2	1,1	3.600,0
Estatu Batuak (*)	1	10,0	3,4	11.100,0
Espainia	6	39,3	13,6	43.619,5
Frantzia	1	5,8	2,0	6.400,0
Italia	1	2,0	0,7	2.232,0
Mexiko	1	4,4	1,5	4.914,0
Erresuma Batua	1	4,4	1,5	4.880,0
Uruguai (*)	2	12,9	4,5	14.309,0
Orokorra guztira	16	124,4	43,0	138.227,5

(*) Argentina eta Estatu Batuetako entitate onuradunak eta Uruguaiako entitate onuradunetako bat euskal etxeen federakundeak edo elkarteak dira.

Zentrozen araberako dirulaguntzak guztira

2003ko urtealdian, euskal etxe bakoitzak ondoko dirulaguntza hauek eskuratu ditu:

Euskal Etxea	€							
	124/03 D	222/03 D	Kultura	Argentina Euskaraz(*)	Amort. Maileg.abala (*)	Hitzarmena Industria(*)	HABE	Guztira
Garapenerako Institutu Euskal-Mexikarra	104.505(*)	-	-	-	145.745	241.573	-	491.823
Txileko Santiagoko Euskal Etxea	-	4.322	-	-	236.546	-	3.240	244.108
Koop.Garapen. Institutu Euskal-Argentinarra	49.060(*)	-	-	-	-	144.313	-	193.373
Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarra	46.580(*)	-	-	-	-	126.622	-	173.202
Eguzki, Koop.Instit. Euskal-Venezuelarra	33.609(*)	7.237(*)	-	-	-	88.492	-	129.338
Entitate Euskal-Argentinarren Federak	30.706(*)	-	-	41.892	-	-	40.512(*)	113.110
Unión Vasca Socorros Mutuos Elkartea	17.961(*)	-	-	-	87.951	-	-	105.912
Euzko Etxea Ztro. Euskal-Argentinarra	1.800	-	-	-	97.018	-	-	98.818
Laurak-Bat Euskal Ztro.	10.036	16.682(*)	-	-	51.106	-	-	77.824
Bartzelonako Euskal Etxea Kultur Zentroa	33.514(*)	-	15.000	-	-	-	11.392(*)	59.906
Guillermo Larregui Chacabuco Euskal Ztro.	743	-	-	-	54.337	-	-	55.080
Gure Txokoa Ztro.Euskal-Argentinarra	-	-	-	-	53.280	-	-	53.280
Rio Cuartoko Gure Ametza Euskal Ztro.	2.800	-	-	-	43.966	-	-	46.766
Arbola bat Euskal Ztro.	1.123	-	-	-	40.928	-	-	42.051
Madrilgo Euskal Etxea	23.000(*)	-	-	-	-	-	17.786(*)	40.786
La Platako Euzko Etxea Euskal Ztro.	10.209	-	-	-	23.428	-	-	33.637
Chascomus-eko Ztro.Euskal-Argentinarra	1.470	-	-	-	26.751	-	-	28.221
Ctro. Vasco Zelaiko Euskal Etxea	-	-	-	-	28.115	-	-	28.115
Pariseko Eskual Etxea	19.250(*)	-	-	-	-	-	5.760	25.010
Lapridako Lagunen Etxea Euskal Etxea	1.259	1.974	-	-	20.500	-	-	23.733
AC Mexikoko Euskal Etxea	19.268(*)	-	-	-	-	-	4.423	23.691



€

Euskal Etxea	124/03 D	222/03 D	Kultura	Argentina Euskaraz(*)	Amort. Maileg.abala (*)	Hitzarmena Industria(*)	HABE	Guztira
Montevideoko Euskal Herria	14.027	2.171	-	-	-	-	6.585	22.783
Euskal Etxea d' Andorra.....	19.620(*)	-	-	-	-	-	1.944	21.564
Basque Museum & Cultural Center	21.508(*)	-	-	-	-	-	-	21.508
Villa Mariako Euzko Etxea	20.392(*)	-	-	-	-	-	-	20.392
San Francisco Basque Cultural Center Inc	18.906(*)	-	-	-	-	-	-	18.906
Euskal Etxea Asoc. Cult. y Beneficiencia.....	17.424	-	-	-	-	-	-	17.424
N.A.B.O.-North American Basque Org.....	6.368	-	-	-	-	-	9.990(*)	16.358
Rosarioko Zazpirak Bat Euskal Etxea	12.363	3.494	-	-	-	-	-	15.857
Caraboboko etxe Euskal Venezuelarra	15.410	-	-	-	-	-	-	15.410
Valparaisoko Euzko Etxea - Casa Vasca	3.760	9.700	-	-	-	-	-	13.460
Euskaldunak Denak Bat Euskal Etxea.....	2.053	-	-	-	10.818	-	-	12.871
Denak Bat Euskal Etxea.....	3.942	8.280	-	-	-	-	-	12.222
Gure Txoko Kultur Elkarte.....	9.611	-	-	-	-	-	2.214	11.825
Euskal Etxea Artea	7.105	-	-	-	-	-	3.386	10.491
Basque Society-Euskal Elkarte.....	6.016	-	-	-	-	-	4.392	10.408
Juan de Garay Funda. Euskal-Argentinarra	10.290	-	-	-	-	-	-	10.290
Euzko Etxea of New York.....	10.235(*)	-	-	-	-	-	-	10.235
Eusko Etxea de Barcelona Puerto la Cruz.....	9.115(*)	-	-	-	-	-	-	9.115
Federac. Instituciones Vascas Uruguay.....	2.600	-	-	-	-	-	6.293	8.893
Sukalde Elkarte Zibila.....	8.721	-	-	-	-	-	-	8.721
Mar de Platako Denak Bat Euskal Etxea	8.632(*)	-	-	-	-	-	-	8.632
Toki Eder Euskal Etxea	3.849	3.890	-	-	-	-	-	7.739
Valentziako Etxe Euskal-Nafarra	5.656	-	-	-	-	-	2.052	7.708
Montevideoko Haize Hegoa	6.372	-	-	-	-	-	-	6.372
Gure-Txoko Basque Club Inc.-Australia.....	6.165	-	-	-	-	-	-	6.165
Alkartas. Southwest. Wyoming Basque	6.008	-	-	-	-	-	-	6.008
46 etxe, guzt. 6000 € dirulag.	100.200	6.409	0	0	0	0	4.436	111.045
Emakida guztira	763.241	64.159	15.000	41.892	920.489	601.000	124.405	2.530.186
Guztizkoaren gainean %	30,2	2,5	0,6	1,7	36,4	23,7	4,9	100,0

(*) HKEEk aztertutako dirulaguntzak.



IV.2 ORDEZKARITZAK

IV.2.1 SORRERA ETA EGITEKOAK

Eusko Jaurlaritzak 6 ordezkariak sortu ditu EAEz kanpo, Brusela, Madril, Mexiko, Argentina, Txile eta Venezuelan. Ordea, Argentina eta Venezuelako ordezkariak ez dute inongo jarduerarik izan 2003an.

Bruselako Ordezkaritza

89/1988 Dekretu bidez sortu zen. Euskadi ordezkatzeko duen organoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren hainbat alorretako interesak babestu eta bultzatzen ditu Europako Batasunaren erakundearen aurrean. Hona hemen dituen egitekoak:

- Autonomia Erkidegoaren interesak Europar Batasuneko Erakunde eta organoen aurrean ordezkatzeko.
- Euskadiren interes sozioekonomiko, sektoriak eta profesionalen kudeaketa, ekimen komunitarioek haietan eragina duten heinean.
Europako Gaietarako Zuzendaritza babestu bere egitekoen aribidean.
- Autonomia Erkidegoaren eskumen edo interesak eragiten dituzten Europar Batasunaren legegintzako ekimenei dagokienez, erabakiak hartu eta informazioa eskuratzeko prozesuaren jarraipena.
- Azpiegitura funtzioa bete eragile sozioekonomiko eta aginte autonomikoen eta erakunde komunitarioen arteko topaketak bideratzeko.
- Aholkularitza teknikoa, laguntza emateko zentro logistiko modura, elkarrearen esparruan esku hartzeko borondatea duten erakunde publiko eta pribatu autonomikoei.
- Autonomia Erkidegoa Espainiako Ordezkaritza Iraunkorarekin harremanetan jartzeko organo modura jardun.
- Europako Erakundeekin egin beharreko diren jardura zuzenak arautzea eta elkarteko politikak mamitu eta ezartzean departamenduek esku har dezaten; berebat, premiazko arazoak tarte, Departamenduek egindako haien berri ere izatea.
- Autonomia Erkidegoetako beste bulego batzuekin kolaboratu, Länder edo Bruselako eskualdeetakoekin.
- Autonomia Erkidegoren Administrazio Orokorreko entitate eta jardute-atalek Bruselan kokatutako beste entitate publiko eta pribatu batzuekiko kolaborazioa bideratu, Euskadiren sektoreanitzeko interesak babestu eta sustatzeko.

Madrilgo Ordezkaritza

Urtarrilaren 28ko 9/2003 Dekretu bitartez sortu zen eta helburua da Madrilen Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak instituzionala izatea eta euskal errealitatea zabaltzea, ordezkariaren izendapena 2003ko otsailaren 11n egin zela. Ordezkaritza honi egotzi zitzaizkion egitekoak honako hauek dira:



- Eusko Jaurlaritzak dituen interesak Estatuko hiriburuan ordezkatzea.
- Lehendakariari, Eusko Jaurlaritzaren gainerako kideei eta Madrilen euren egitekoak garatzeko Administrazio Autonomoko langileriari babesa ematea.
- Estatuko Administrazioaren aurrean Eusko Jaurlaritzaren egiteko instituzionalak berezko dituen jarduerak bideratzea.
- Madrilen ordezkaritza duten Autonomia Erkidego eta Europako lurraldeetako ordezkariekin harremanak izatea.
- EAEn eragina duten Europar Batasuneko politiken jarraipena egitea, batik bat Europako Batzordearen eta Europako Legebiltzarraren Madrilgo Ordezkaritza Bulegoekin harreman arina bideratuz.
- Estatuko Gobernuaren atzerriko politikaren garapenaren jarraipena egin, Atzerri-Arazoetarako Ministerioarekin harremanak mantenduz eta hartara, Euskadiko interesak eragiten dituzten Estatuaren jardueretan Eusko Jaurlaritzaren atzerriko ekintza hobetu ahal izateko.
- Madrilen komunikabideei Eusko Jaurlaritzaren politika eta jarduerak zabaltzeko laguntza ematea.
- Euskal Diputatu eta Senadoreei azpiegitura eta laguntza materiala emateko izan daiteke.
- Madrilen EAEn entitate publiko eta pribatuak estatuko erakundeekin elkartzea bideratzeko laguntza zentro modura eratuko da.

Mexiko, Argentina, Txile eta Venezuelako Ordezkaritzak

Ordezkaritza bakoitza EAEn ordezkaritza organoa da garapenerako kooperazioaren alorrean, euskal gizataldeekiko harremanen alorrean eta EAEn dagokion eskumenen esparruan sektore anitzeko interesak babestu eta sustatzeari dagokionez. Mexikoko Ordezkaritza martxoaren 20ko 72/2002 Dekretu bidez sortu zen; eta gainerako hiruak otsailaren 11ko 24, 25 eta 26/2003 Dekretuen bitartez.

Nahiz eta Argentina eta Venezuelako ordezkaritzak sortzeko dekretua 2003ko otsailaren 11ko 24, 25 eta 26/2003 Dekretuen bitartez, 2003ko urtealdian zehar eta lan hau egin den datara arte, ez du inolako jarduerarik izan eta ez dago ezta zehaztuta ere, jarduteko molde juridikoa zein izango den.

Mexiko eta Txileko ordezkaritzari dagokienez, martxoaren 11ko 62/2003 Dekretu bidez eta apirilaren 1eko 81/2003 Dekretu bidez, Eusko Jaurlaritzaren Mexiko eta Txileko Ordezkaritza izendatu ziren. Ordea, 2004ko urtera arte ez dute egoitza propioa izan. Txileri dagokionez, 2003ko abenduan etxebizitza bat erosi zen eta Mexikon, berriz, 2004ko martxoan Institutu Euskal-Mexikarraren ohiko batzar arruntak erabaki zuen, karga orotatik libre, elkarteak bere egoitza duen eraikinaren gainean dituen jabetza eskubideak Gobernuari dohaintzan ematea, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzak bulego modura erabil dezan; dohaintza hau, 2004ko azaroaren 2ko 205/2004 Dekretu bidez oniritzi zen.

2003ko urtealdian zehar, ordezkaritza euren egitekoak Institutu Euskal-Mexikarraren eta Garapenerako Fundazio Euskal-Txiletarraren bulegoetan gauzatu dituzte.



Ordezkaritza hauentzat sorrera-dekretuetan finkatutako egitekoak honako hauek dira:

- Dagokion herrialdean EAEren giza eragileen arteko lankidetzak eta topaketa bideratu.
- Bisitaldi, topaketa eta informazio trukea bideratzeko harremanetarako organo lanak egin.
